



BARREN

TOKIKOM

Gautenak hartu du lekua Santa Klaran



LAGUNAK
colchonería textil hogar



- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Confort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioa
- 6 atsedeen gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Confort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

Proba ezazu koltxoi natural batean lo egitea zer den eta
bizi ezazu esperientzia lasaigarri bat. Zatoz probatzera gure dendara!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



MINTXETA TABERNA

Irailaren 12an itxiko dugu igerilekuetako taberna.
Eskerrik asko uda honetan etorri zareten guztioi!

**Irailaren 13tik aurrera Mintxeta taberna
ordutegi berriarekin dator!**

Astelehenetik ostiralera 9:00-22:00

Astearteak: itxita

Zapatuak: 9:00-19:00

Domekak: 9:00-19:00

**ASTEARTEETAN ITXITA
ATSEDEN EGUNA DUGULAKO**

Erreserbetarako:

943 747 447



EUSKARAZ

ZABALDU 2021-2022
AUKERAK

DESCUBRE TODO LO
QUE TE OFECE
EL EUSKARA



Matrikula zabalik

Ikastaroak

Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun
astean, mailaren arabera.

Autoikaskuntza Internet bidez.
Euskara ulertu eta euskaraz
bizitzeko ikastaroak.

Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.

Azterketa prestatzeko ikastaroak:
HABEren titulu ofizialak,
Administrazioa, Osakidetza.

16 urtetik gorakoentzat

Matrikulaldia: Irailaren 1etik 24ra arte
Langabetu, ikasle eta gurasoek

MATRIKULA ERDIA

Ikastaro amaleran **BEKAK** denentzat
(Baldintzak betez gero)

Informa zaitetz Udal Euskaltegia!

MATRIKULA ORDUTEGIA

09:00 - 13:00 / 15:30 - 19:30

DEBABE UDAL EUSKALTEGIA

Elgoibar: Aita Agirre 3, 3.a - 943 742 731



JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea

Hegaztien migrazioa: argitu gabeko fenomenoa

behartuko dituzte. Dena den, bestelako baldintzek eraginda mugituko dira sasoi honetan txori multzo handiak. Urtaro aldaketak beldi mota asko zimelduko ditu, eta haizak baino ez dira geldituko. Zuhaitz eta zuhaiskei ere beste horrenbeste gertatuko zaie, eta udaberriak horren txukun apaindutako hostoak galduko dituzte. Anfibioko hezetasunaren usainera mugildu edota lurperatuko dira, eta birgarroak horren gogoko dauzkan barraskiloek euren burua oskoletan gorduko dute. Migrazioa ez jotzeak elikadura aldatu beharra dakar, eta hori ez dago edozein txoriren bizi-baldintzetan.

*“Etorkizuna iragartzeko
hegaztien hegaldiei
erreparatzen zieten
antzinako igarleek”*

Sasoi bateko baserriarrek eguraldian berri izateko tenporei kontu egin bezala, antzinako igarleek etorkizuna asmatzeko hegaztien hegaldiei erreparatzen zieten. Izan ere, zenbait espezieren etorrerak ekaitza edo izurriteen berri ematen zuten. Egun, holako usteak alboratuta badaude ere, Europa eta Afrikaren artean urtero egiten diren txorien migrazioaren gainean galdera asko daude oraindik airean: baso-txinbo bezalako txoritxo batek nola egin ditzake hainbeste kilometro? Zerk gidatuta egiten dute harako eta honako bidea?

Laster, Europako iparraldeko elurak eta hotzak hegazti asko lekuz aldatzera

Gainontzeko argudioak kontuan hartzeak badira ere, elikagairik eza aipatu behar da beste guztien gainetik.

Proba luze eta gogor horretan parte hartzen duten hegaztiak, gehienetan, trabak baino ez dituzte topatzen. Batzuetan, eguraldi txarra saiaturiko da enbarazu egiten. Besteetan, laino itsua, kontrako haize indartsua, eta harrapari asko (gabiraiak, belatzak...) izango dituzte zain, ahaztu gabe, gizakiok eragindako kaltea. Izan ere, Euskal Herriko ehiza zaletasuna dala, nekazaritza intentsiboko lurraldeetan lehortek direla, linea elektrikoak direla..., bidaiaren arriskua areagotu egiten da.

Europa eta Asiatik Afrikara negupasa egitera etorritako txoriak milioika izan arren, janaria nonahi izango dute, eta oso ondo konponduko dira bertakoekin. Orain guri horren maitagarriak diren hegaztiak ongi etorria ematea eta errespetua erakustea baino ez zaigu falta. Bidaia on!



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko-herrikoaren Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► IGERIKETA IKASTAROEN HARIRA

Olaizaga kiroldegiko ikastaroen harira guraso askok sentitu duguna azalerratu nahiko nuke. Gure seme-alabak igeriketan zebiltzan, pozik, igerian ikasten, egunetik egunera hobetzen, eta batbatean inork espero ez genuen ditxozosko pandemia iritsi zitzaigun. Ikastaro guztiak bertan behera geratu ziren, eta gure umeentzat hain garrantzitsua den igerian ikasteko prozesua eten egin zen. Ez genekien etenaldia noiz arte izango zen, baina kiroldegian esan ziguten klaseak martxan jartzen zirenean, ordura arte izena emanda zeudenek lehentasuna izango zutela ikastaroetan. Etenaldia luzea izan da, askok uste eta nahi genuena baino luzeagoa, baina zorionez, badirudi egoerak hobera egin duela eta irailean berriz ere martxan jarriko dituzte igeriketa ikastaroak. Hasierako poza, atsekabe bihurtu zaigu guraso askori, esan digutelako lehendik izena emanda egon arren, izena ematen duten ikasle guztiak zaku berean sartuko dituztela. Urte eta erdi igeriketa ikastarorik gabe egon ondoren, jende asko ari da izena ematen, lehendik zebiltzanak eta berriak, eta seguruenik zozketa egin beharko dutela jakinarazi digute. Ez zaigu justua iruditzen, eta gure ustez lehentasuna izan beharko lukete dagoeneko igeriketa ikasten ari ziren umeek. Igeriketa beste edozein kirol moduan ikusten dugu. Demagun judoan zebilela ume bat eta pandemia aurretik gerriko horia zeukala. Pandemia ondoren jende askok izena eman duela ikasle horrek ezingo luke gerriko urdina edo gorria eskuratzeko ikastaroetan jarraitu? Igeriketarekin berdina gertatzen da. Gure umeak hasita zeuden igerian ikasten, eta orain gerta daiteke aukerarik ez edukitzea ikasten jarraitzeko. Igerileku berriak ez al du aukera ematen ikastaro gehiago jarri eta denei zerbitzua emateko? Orain jakin dugu, bestalde, uztai-

lean igeriketa ikastaroak eman zituztela eta han ibili diren ikasleei bai gordeko zaiela lekua iraileko ikastaroetan. Ez dakit non eman zuten ikastaro horien berri, niri behintzat ez zitzaidan informazioa iritsi, bestela, neuk ere bidaliko nukeen umea ikastarora, irailerako plaza ziurtatzeko.

S.M.

► ZUMAIKO-ELGOIBAR

Irailaren 1ean Zumaiako-Elgoibar futbol-partida ikusten egon nintzen, eta futbol-partida bat ikusi beharrean, gazte batzuk ikusi eta entzun nituen Elgoibarko jokalariek iraintzen, txistua botatzen... Egoera bortitza bat sortu zen, aspalditik futbol-zelai batean bizi ez nuena, beste herri batzuetan irainak entzun ditudan arren.

Denok harritu gintuen ustekabeko egoera horretan helduok ondo jokatu genuen galdetzen diot neure buruari, partida gelditu eta jokalariei nola sentitzen ziren eta zer egin nahi zuten galdetu ahal izan genien, partida bertan behera utzi... baina ez genuen ezer egin. Ez zuen ezer egin arbitroak (iraindu egin zuten); ez zuten ezer egin, ez entrenatzaileek, ez arduradunek, ez Zumaiako gurasoek, ezta Elgoibarko entrenatzaile eta gurasoek ere. Kanpotik, mutilek gero eta giro bortitza sortzen zuten bitartean, bai jokalariek, bai bi taldeetako arduradunak, eta han geunden guraso eta helduak gero eta harrituago eta urdurriago sentitzen ginen. Gertatzen ari zenari kasurik ez egitea aukeratu genuen. Oso zaila bazen ere, eta jokalarientzat ezinezkoa.

Jokalariek eta besterik gabe partida ikustera joan ziren gainerako neska-mutilek zer ikusi zuten? Nola bizi izan zuten? (Beharbada pentsatu zuten, iraindu ahal duzula, zitzatekela, garrasi egin dezakezula edo egin diezazuketela, mehatxatu..., ondoriorik jasan

gabe,) eta hortaz batzuek partidua bukatu arte jarraitu zuten iraintzen.

Jokoa bera gogortu egin zen, jokalaria guztiak (bi aldeetakoak) urduri, agobiaturik edo haserre zeudelako.

Ni Elgoibarko jokalaria horietako bat izan banintz, agian bakarrik sentituko nintzateke, han pertsona heldu ugari zeuden, arduradun batzuk zeuden eta inork ez zuen ezer egin hura mozteko. Zer irakasten diegu gure gazteei? Ondo egin genuen ez ikusiarena egin tean?

Ondo dago Zumaiakok manifestu bat egitea gertatutakoa salatuz, baina niretzat hobeto legoke gaztetxo horiekin hitz egitea (klub horretakoak direnekin behintzat), beren ekintzetaz ohartu daitezten, ardura hartu eta ondorio batzuk izan ditzaten), eta batez ere irakatsi ez dagoela lekurik gizarte honetan matxistentzat. Gizartea herritar guztiok sortzen dugu eta nire ustez ez Zumaiak ez beste inon ez genuke horrelako portaerarik jasan behar.

G.L.

► TOLETXE KALEA

89 urte ditut eta azken 60 urteetan Pedro Mugurutzak Etorbidean bizi naiz. Orain izena aldatuko zaio kale honi, eta berehala ahaztuko zaigu, baina gertatzen dira ahaztuko ez direnak eta ahaztu ezin direnak: Toletxeko etxe handia, Toletxe-gaina, Toletxegain geltokia... Hori horrela izanik, eta Artetxe eta Usetxe izenak ondo hartuak izan direnez, zergaitik ez kale honi Toletxe kalea izena jarri? Ez litzateke aldrebasa izango kale hori Artetxan bukatzea eta Melitondik aurrera beste izen bat ematea. Toletxeko etxe handiak 8 zenbakia du eta hortik distantzia handi batera dago hurrengo 10 zenbakia.

Eskerrik asko arretagatik, iritzia onartzen dezuten guztiak.


Jose M^e Etxeberria Larrañaga



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus ☎ 943 744 112 📞 688 634 044



Skate parkean iturri bat falta da: “Skate parkean ibiltzen garenean berotu egiten gara, eta inguruan ez dago iturririk. Eskertuko genioke Udalarari iturri bat jartzea”.



Atari aurrean pixa egiten digute: “Ez dago esku-biderik! Urazandin bizi gara, eta 5-7 atarrietako aurrealdean jendeak pixa egiten du. Errespetu apur bat, mesedez”.



Kilimon erreka bazterrak zikin-zikin daude: “Kilimon erreka bazterrek eskertuko lukete txukundu bat ematea. Deba ibaian basoa hazi da eta Kilimon erreka bazterrak lagata daude. Ubide bazterretan zuhaixkak eta sasiak asko hazi dira eta tarte batzuetan sasiak kanpoko pretilla ere gainditu du. Errekan eta inguruan arratoiak ere asko ugari dira. Udalarari edo dagokionari esku-hartzeko eskatu nahi diot. Eskerrik asko”.



Karakateko mahaiak primeran geratu dira: “Karakate gainean lau mahai jarri dituzte aulkiekin eta primeran geratu dira. Abuztuko iluntze batean bertan afaldu genuen ilunabarrari begira, eta zoragarria izan zen. Eskerrik asko”.

Asteazkenean hasi zuten ikasturtea eskola-umeez, iazko baldintzetan



Hasi da ikasturtea. Iazko prebentzio neurriak hartuta ekin zioten eguaztenean, Arrate Egunez, ikasturte berriari, baina urduritasuna eta kezka ez dira iazkoak. Izan ere, urtebeteko praktika lagun izango dute aurten, bai ikasleek eta haien gurasoek, bai eta ikastetxeetako profesionalak ere. "Txertaketa-kanpainak inflexio-puntua ekarri du", jaso du Hezkuntza Sailak ikastetxeetara bidali duen protokoloan. Immunizatutako populazio helduaren zein 12 urtetik 18 urtera bitarteko ehuneko "oso altua" dela zehaztu du, eta horri gehitu behar zaiola komunitate zientifikoak lortutako ebidentzia eta ezagutza. "Prebentzio-neurriak batere lasaitu gabe, baina profesionalen artean askoz ere zalantza edo antsietate gutxiagorekin hasiko da ikasturtea", dio horren harira.

Oro har iazko baldintzetan hasiko da ikasturtea, baina %100 aurrez aurrekoa izango da. Higiene-neurriak eta aireztapena zainduko dituzte eskoletan, kontaktuak mugatu, eta maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango dute 6 urtez gorakoek (Maskara erabiltzetik salbuetsita egongo dira Hezkuntza Bereziko gela egonkorretan eta Hezkuntza Bereziko ikastetxeetan). Eskolara orduko, etxean tenperatura hartzeko gomendatuko diete, ikastetxeko sarrera-irteerak ezberdinak izango dira, txandaka eta taldetan joango dira jangelara ere, jolastorduan ere ikasgelaka banatuta jolastuko dira. Aldaketa bat onartu du, baina Hezkuntza Sailak. Geletan, esaterako, talde txikietan egoteko aukera izango dute Lehen Hezkuntzan ere. Hala zen Haur Hezkuntzan iaz. Aurten, baina, Lehen Hezkuntzan eta DBHko 1 eta 2. mailetan ere sortuko dira talde burbuilak. Maskara erabili beharko dute denek, baina ikasleek beren talde/ikasgelan elkarreragin eta harremanak izan ahalko dituzte. Lehen Hezkuntzan, ikasgela barruan lan-azpialde egonkorak sortu ahal izango dituzte, 4 edo 5 ikaslez osatutakoak, baina azpialde horietako bakoitzak 1,5 metroko distantziari eutsi beharko dio. Aire zabalean, talde burbuila bereko ikasleak elkarrekin jolastu ahal izango dira, distantziak gorde gabe. DBHko 1 eta 2. mailetan 3 edo 4 ikasleek osatutako talde egonkorak sor daitezke. Talde horiek 10 egun baino gehiagoko oporraldien ondoren aldatu ahal izango dira.

Eskolaz kanpoko jarduerak egin ahal izango dira. Horra beste aldaketa. Taldeak nahasten badira, jarduerak aire zabalean egitea eta maila bereko ikasleekin egitea gomendatzen du Hezkuntzak. Era berean, guraso elkarteak ikastetxeko ohiko guneetan bildu ahal izango dira, bai eta egokitzat jotzen dituzten prestakuntza-jarduerak egin ere, dagozkien prebentzio eta higiene-neurriak betez eta Kontingentzia Plana eginez.

Jubilatuen Biltokiko gizarte aretoa berriro da zabalik

Alarma egoera bertan behera utzi zutela denbora pasatu bada ere, Elgoibarko Jubilatuen Biltokiko gizarte aretoa itxita izan du Udalak oraintsu arte, "adinekoak talde zaurgarria direlako eta haien segurtasuna eta osasuna lehenetsi direlako". Baina osatu dute kontingentzia plana, erabiltzaileen ongizatea bermatzeko neurriak hartuta, eta zabaldu dute berriro aretoa. Taberna eta erabilera anitzeko gelarekin batera, gizarte aretoa ere zabalik dago eta ohiko jarduerara bueltatzen hasiak dira Jubilatuen Biltokian. Bide horretan zenbait ekintza eta ekimen antolatu dituzte datozen aste zein hilabeteetarako, eta lotutako artean bi nabarmendu dituzte: Zumaiara egun bateko txangoa egingo dute eta Añanako Gatz haranera ere joango dira bisitan.

Matrikulazioaldia zabalik Mendaroko ballet eskolan

Biraka taldeak kudeatzen zuen Mendaroko ballet eskola Rosa Marinek hartu du, urte askoan eskolako irakasle izan denak, 21 urte baino gehiagoko eskarrendua duen dantza-irakasleak, eta izena emateko epea zabalik dago. Umeez zein nagusiek eman ahal dute izena eta eskolak Azpilgoetako Kultur Etxean izango dira, orain arte bezala (Azpilgoeta kalea, 17). Izena emateko 667519153 telefono zenbakira deitu behar da.



Leire Garatxena Larrabe da Atxutxiamaikako arduradun berria



Leire Garatxena Larrabek (Ajangiz, 1991) ordezkatu du Naiara Martin Atxutxiamaiка aisialdi taldean, aldi batez. Bera izango da Sailaren arduraduna. Haur Hezkuntzako Gradua eta Gizarte Hezkuntzako Gradua eginak dauzka eta Aisialdiko zuzendari tituluaren jabe da. Ingurumen zentroetan eta natura eskoletan aritu da hezitzaile lanetan, eta euskalgintzako eta herrigintzako zenbait proiektu eta egitasmo lotua ageri da bere izena Bizkaian. Iazko edizioan, esaterako, Euskaraldiaren dinamizatzailea izan zen Busturialdean eta 2015. urteaz geroztik Bertsozale Elkartearen ere badihardu lanean, gai-jartzaile.

Pintura eta zeramika tailerrak antolatu ditu Egur arte tailerrak

Pintura eta zeramika tailerrak antolatu ditu Egur arte tailerrak. LH1etik DBH2ra artekoak hartuko dituzte pintura tailerlean, eta taldea osatzeko gutxienez bost lagun elkartu beharko dira (gehienez 12 lagunekoak izango dira taldeak). Eskolak irailaren 20an hasiko dira eta astean behin edo birritan joan ahal izango da. Astean egun bat joanda, hilean 1,5 euro ordaindu beharko dira, eta astean birritan joanda, hilean 2,6 euro. Izena emateko 666 557 538 telefono zenbakira deitu behar da. Zeramika tailerrarako izena emateko ere telefono berera deitu behar da. Zeramika tailerrak LH3tik DBH2ra arteko haur eta gazteentzako antolatu dute eta eguaztenetan izango dira eskolak. Taldeak gutxienez bost lagunekoak eta gehienez hamar lagunekoak izango dira eta prezioa hilean hogeiturokoa izango da. Ikasturtea urriaren 6an hasiko da. Bai baterako zein besterako izena emateko azken eguna irailaren 14a izango da.

KONTSULTATEGIA



*Beti izan dut
zalantza hortzetako
pasten inguruan.
Denak berdinak dira?
Gomendiorik?*



Adi, adi!

Aldaz hortz klinikakook atal berria izango dugu BARRENen: Aldaz kontsultategia. Izan ere, helarazi dizkiguzuen zalantzei eta kezkei esker, informazio asko bildu dugu eta zuekin partekatu nahiko genuke, M^a Jose Gelado, Juan Jose Aldaz eta Esther Maestre doktoeren bidez; izan ere, badakigu oso baliotsua izango zaizuela. Aste honetan hasiko gara, hortzetako pasten inguruan egin diguten galdera honi erantzunez: "Betiz izan dut zalantza hortzetako pasten inguruan. Denak berdinak al dira? Gomendiorik?"

Hortzetako pasta guztiak ez dira berdinak. Gure hortz eta hortzoietan izan ditzakegun arazoak konpontzeko hortzetako pasta mota desberdinak daude. Erraz aurkitu daitezkeen batzuk honako hauek dira, esaterako: hortz sentikorak dituztenentzako hortzetako pastak, gure hortzoiaren arazo periodontoetarako balio duten pasta bereziak, listu faltaren arazoak dituztenentzakoak... horietako batzuk adibidez fluor kontzentrazio handiagoa dute, esmaltea birmineralizatzen, txantxarra saihesteko eta abarrerako.

Ez ditzagun pasta zuritzaileak eta haurrentzako prestaturik dauden hortzetako pastak ahaztu. Azken horiek fluor kontzentrazio apalagoa izaten dute. Nolanahi ere, gomendagarria litzateke zure odontologoari kontsulta egitea, hortzetako pasta bakoitzak osagai ezberdinak dituelako eta odontologoak jakingo duelako zein datorkizun ondoen.

AHOLKUA: Dentistara joaten zaren hurrengo bisitan, zure hortzetarako pasta egokiena zein den galdetzea gomendatzen dizugu.

ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22- 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com

943 366 377

42 auto aparkatzeko lekua egin dute igerileku berriaren goiko aldean, eta dagoeneko, erabiltzeko prest dago

E lgoibarko Udalak aparkaleku berria egokitu du igerileku berriaren gainean, eta joan zen barikutik bertan aparkatzeko aukera dago. 42 plaza ditu guztira, eta horietatik bi leku ezinduentzako gorde dituzte. Meka eraikinetik egokitu dute aparkalekurako sarrera, ikastetxearen eskubiko aldetik. Sarrera horretan, bestalde, beste 18 auto aparkatzeko lekua egokitu dute, eta oinezkoentzako ibilbidea hobetu dute. Guztira, beraz, Meka eta kiroldegi inguru horretan 60 ibilgailuk aparkatzeko lekua sortu dute. Oraingoan, oinezkoentzako sarbidea ere Meka eraikinetik jarri dute, eskailera berriak eta igogailua bukatu artean.



Arregitorre kaleko edukiontzia erre dituzte aste honetan, hirugarrenoz

Arregitorre kaleko zabor edukiontzia erre zituzten astelehenetik martitzenerako gauean, eta suak kalteak eragin zituen han inguruan aparkatutako autoetan eta aurreko etxebizitzetan. Denbora tarte laburrean hirugarren aldiz erre dituzte edukiontzi horiek, azkena abuztuaren 27an. Azken eraso honetan zazpi edukiontzik hartu zuten su, eta suteak eragindako kalteak aurrekoetan baino handiagoak izan dira. Udaltzaingotik jakinarazi dutenez, aurrekoetan suak indarra hartu baino lehenago baretu edo amatatu ahal izan zituzten garrak, baina oraingoan ezin izan zuten. Ertzaintzarekin elkarlanean gertaturikoa ikertzen ari direla esan dute Udaltzaingotik, eta herritarren laguntza eskatu dute, Arregitorreko eta herriko beste hainbat gunetan gertatu diren suteak argitzeko. Era berean, udaltzaingotik eskerrak eman dizkiote Arregitorreko bigarren erasoan Otxak tabernako su-itzaltzailea hartuta sua itzaltzen alegindu zen herritarrari. Arregitorreko eraso hau gunere berean egin duten hirugarrena izan da, eta abuztuan zehar Iñigez Karkizao kalean eta Mintxetan ere erre dituzte edukiontzia. Elgoibarko Udaletik eta Debabarreneko Mankomunitateak gertakari hauek gaitzetsi dituzte: "Orderna publikoaren aurkako mota honetako ekintzek sortzen dituzten kalteak eskualde osoan eragiten dute, bai kalte materialen kostuari dagokionez eta baita elkarren arteko bizikidetzan eta errespetuan".



4.000 euroko kalteak

Erre diren bi autoak eta etxebizitzaren fatxadaren eragindako kalteak kontuan hartu gabe, azken suteak 4.000 euroko kalteak eragin dituela jakinarazi dute Mankomunitatetik: "Albotik kargatzen diren zabor edukiontzia 1.100 euro balio ditu eta iglu formako bakoitzak 600, beraz, 4.000 bat euroko kostua izan du azken sute honek". Dagoeneko jarri dituzte edukiontzi berriak, baina aldi baterako lekuz aldatuko dituzte. Hondakin organikoaren eta errefusaren edukiontzia lehen zeuden lekuan lagako dituzte, baina gainerako edukiontzia institutuko sarrera parean ipiniko dituzte, horrelako gertakari berriz gertatuko balitz kalteak gutxitzeko asmoz. Mankomunitateak barkamena eskatu die bizilagunei, antolamendu honek sor ditzakeen eragozpenengatik.

300.000 euro jaso ditu Udalak Urazandiko igogailuak finantzatzeko

Elgoibarko Udalak 549.022,21 euroko inbertsioa egin du Urazandiko igogailuen obran, auzorako irisgarritasuna hobetzeko. Proiektua Eusko Jaurlaritzaren 2020ko dirulaguntza deialdi batera aurkeztu zuten, hain zuzen ere, Udalentzako, tokiko erakunde autonomoentzako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako dirulaguntzen deialdira, eta proiektua aztertu ostean, Jaurlaritzak 300.000 euroko dirulaguntza eman dio Elgoibarko Udalari.

Irisgarritasuna hobetzeko helburuan beste hainbat obra ere abian daude Elgoibarren: Batetik, Arreiturre-Erretsundi batuko dituen igogailua eraikitze lanak martxan dira. Horretaz gain, Errotaberrin ere eskilara mekanikoak ordezkatzeko igogailua jarriko dute, eta King Kong-eko zubiaren eraberritzeari ekiteko hartu-emanen dabil Elgoibarko Udala URA ur agentziarekin.

Maskulinitate tailerra eta emakumeentzako bizipen tailerra antolatu ditu Almaur elkarteak

Almaur proiektuaren barruan maskulinitate tailerra eta emakumeentzako bizipen tailerra antolatu dituzte, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. Gizonezkoen topaketa irailaren 24an, 25ean eta 26an izango da. Vicente Dominguez coach eta idazleak emango du tailerra, eta besteak beste, emakumeen leinua gizonengan landuko dute. Informazio gehiagorako 627 117 819 telefonoan. Emakumeentzako bizipen tailerra, bestalde, irailaren 23an aurkeztuko dute, 18:00etan, Lilan, Emakumeen Etxean (King-kong eraikinean, liburutegi zaharrean). Belen Capape izango da tailerraren gidaria. Aurkezpenaren ostean, hilean behin izango dira saioak. Emakumeen bizipenetan oinarrituta, norberaren barrura begiratuko dute, bakoitza nor den aztertze eta norbere burua zaintzeko. Urriaren 30ean, azaroaren 20an eta abenduaren 4an izango dira saioak, 10:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako 656 869 534 telefonora deitu behar da.

Begiraleak behar dira Mendaroko Ludotekarako eta Gaztelekurako

2021-22 ikasturterako begiraleak behar dituzte Mendaroko Ludotekak eta Gaztelekuak. Bi begiralek osatuko dute lantaldea, eta txandaka egingo dute lan, asteburuak libratu ahal izateko. Ludoteka astelehenerik eguenera egongo da zabalik, 17:00etatik 18:30era 4tik 10 urte bitarteko umeentzat, eta barikuetan, 11-12 urtekoentzat. Gaztelekuak, berriz, barikutik domekara zabalduko dute 18:00etatik 20:00etara, 13tik 17 urtera arteko nerabeentzat. Interesatuek ondorengo bideak dituzte izena emateko: www.gure.eus webgunea, 944 685 713 telefono zenbakia edo hola@gure.eus helbidera. Beharrezkoa da EGA titulua edo balio-kidea izatea.

Heriotzari buruzko 'Hili' liburua aurkeztuko du Uxue Alberdik irailaren 13an

Uxue Alberdi idazleak eta Araiz Mesanza ilustratzaileak *Hili* liburua sortu dute Elkar argitaletxearekin. Heriotzari buruzko liburu ilustratua da, eta haurrengan pentsatu dute bereziki liburua sortzerakoan: "Hilda egotea zer den ulertzen saiatzen da haurra, eta ihes egiten dio zerbaitek", adierazi du Alberdik. Dena dela, liburuaren ekarpena ez da haurrentzat bakarrik izango, heriotzaren inguruko galdera-erantzunak ez direlako inoiz erabakita geratzen: "Adin batetik aurrera, hil egingo garela ulertzen dugu, ulertzen saiatzen gara", eta horixe izan da proiektuaren abiapuntuko hausnarketa. Astelehenan aurkeztuko dute liburua Donostiako Udal Liburutegian, eta bertan izango dira Uxue Alberdi idazlea Araiz Mesanza ilustratzailea eta Antxiñe Mendizabal editorea. Aurkezpena online jarraitzeko aukera ere egongo da <https://meet.jit.si/elkarargitaletxea> helbidean.

Salinas de Añanara txangoa antolatu du Jubilatuen Biltokiak hilaren 18rako

Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak txangoa antolatu du irailaren 18rako. Salinas de Añana eta Santa Catalina lorategi botanikoa bisitatuko dituzte. Autobusa 8:30ean irtengo da Kalegoen plaza-tik, eta iluntzerako itzuliko dira. Bazkaria Langraizeko Arroza menderoan egingo dute. Jubilatuen Biltokiko bazkideek 40 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 45 euro. Autobusean 45 laguntzako lekua dago, eta antolatzaileek esan dute autobusa betetzen denean itxiko dutela izenematea. Informazio gehiagorako Jubilatuen Biltokiko zuzendaritzara jo daiteke.



Nuala elkarteko zenbait lagun Gautenak Santa Klaran duen egoitza atarian.

Santa Klara komentuko ateak inklusioari zabalik

Santa Klara komentua izan zenaren zati bat, 560 metro koadroko espazioa, Gautenari laga zion iazko abenduan Elgoibarko Udalak. Lau urterako hitzarmena sinatu zuten bi aldeek, beste lau urterako luzatzeko aukera mahai gainean jarrita. Eta hasierako lehen egokitzapen batzuk eginda, hasi dira Gautenakoak espazio hori erabiltzen, bai eta Elgoibarko Nuala elkarteko familiak ere. “Espazio horrek aukera eman digu zerbitzu gehiago eman ahal izateko, inguru honetan beharra egon badagoelako”, azaldu du Amaia Lopetegi Gautena elkarteko zuzendariak.

- AINARA ARGOTIA -

Ahal den obra txikiena eginda ahalik eta probetxu handiena ateratzen saiatu gara komentua zenari. Hori da gurea: baliabideak beti eskas direnez, gutxirekin asko egi-
tea”, azaldu du Amaia Lopetegi Gautena elkarteko zuzendariak. Debalde laga zion Elgoibarko Udalak lokalaren zati bat Gautenari lau urterako, bai eta komentu inguruko berdeguneak erabiltzeko aukera ere aldi horretan, eta hitzarmemeari jaso zuten hango hornidura-gastuak (ura, argindarra, gasa, telefonoa...) bere gain hartu beharko zituela elkartek. 2020ko abenduaren azken aldera izenpetu zuten agiria bi aldeek, eta gerostik, komentua zena beren erabiltzaileen beharretara egokitzen jardun dira Gautenakoak, beti ere Udalaren oniritziarekin. Oinarrizko egokitzapenak eginda (bereziki segurtasunari eta irisgarritasunari lotutakoak), uztailean hasi zen Santa Klaran zerbitzua ematen Gautena. “Pozik gaude, ezin pozago, inguru honetan geneukan behar bati erantzuteko aukera ematen digulako espazio honek”, zehaztu du Lopetegik.

1978an sortu zuten Gipuzkoan Gautena, Autismoaren Espek-
troko Nahasmena edo desgaitasun intelektuala eta garapen-des-
gaitasuna dituzten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko, eta gaur egun, 80 bat laguni ematen diete zerbitzua Debabarrenean. Zerbitzuak ezberdinak dira. Batetik, arre-
korako bulegoa dute, Eibarren, Argatxan. Bulego horretan topa-
tzen dituzte babesa eta jasotzen dituzte egunero sortzen diren
erronkei aurre egiteko argibideak 18 urtez azpiko seme-alabak
dituzten Gautenako familiek. Psikologo bat du han Gautenak,
baina zerbitzua osatzeko, mediku psikiatra bat ere badute, Do-
nostian. “Izan ere, autismoa bezalako diagnostiko batek familien
bizi proiektua hankaz gora jartzen du sarri eta euren bizimodua
erabat aldatu edo birmoldatu behar izaten dute”.

Era berean, bi gela iraunkor ere baditu Gautenak gure eskual-
dean. “Gipuzkoan 21 gela iraunkor daukagu guztira, eta bi,
hor, zuen inguru horretan. Beharra, beraz, badago hor gehiagorako”. Geletako bat, Lehen Hezkuntzako, Elgoibarko Herri Es-

kolan dago, eta bestea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoa, Eibarko Mogel Isasi institutuan. Premia bereziko ikasleak baino ez dituzten gelak dira gela egonkorak, eta gaur, hamar ikasle daude eskolatuta guztira Elgoibarko eta Eibarko bi gelotan.

Autonomia mugatua duten pertsonen garapen pertsona eta soziala, autonomia eta gizarteratzea erraztera bideratutako laguntza ematen dute Gautena bezalako elkarteek, eta aisialdiak aparteko lekua du hor. Duela hamar bat urtetik uztailan udaleku irekiak antolatu ohi dituzte Eibar, Elgoibar eta Mendaroko haur eta gaztetxoentzat asteburuetan eta oraintsu arte Elgoibarko parrokiak lagatako lokal batean bildu ohi ziren. Aurten, baina, Santa Klarako espazioa erabili dute honetarako. Aisialdi egokituko programa bat ere eskaintzen dute Eibarren aspalditxotik, eta duela 5 bat urte Elgoibarran ere, udal ludotekan.

“Espazioak falta ditugu guk. Betiko borroka dugu. Zerbitzu gehiago eskaintzeko lekua izatea ezinbestekoa zaigu, eta Santa Klarako arnasa handia eman digu”, zehaztu du Lopetegik. Espazio itxia da, pribatua, eta inguruan lorategia du, kanpoko ekintzetarako leku lasaia eta aproposa, eta gainera, herrigunetik oso gertu dago, eta horrek ahalbidetzen die “ingurukoekin harreman-tzea, herriak eskaintzen dituen baliabideak baliatzea, eta inklusioaren alde bidea egitea”. Komentuko goiko solairuan, mojen gelak izandakoak egokitu eta hamaika logela atondu dituzte, eta espazio hori desgaitasuna duten haur eta gazteentzako aisialdi eta Atsedeen programa martxan jartzeko baliatu nahi dute. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmendutako programa da, asteburuetakoa, eta izenak berak argitzen du zertarako sortua den: “Haur eta gaztetxo hauen etxekoei arnasa emateko”. Erabiltzaileak, Gipuzkoa osoak izango dira. Iraila bukaera aldera hasi nahiko lukete Atsedeen Programa eskaintzen, baina espazioa prest dago dagoeneko, eta, abuztuan, udaleku itxietan izena emandakoek erabili dute.

Beheko solairuan, kapilla zen lekuan, haur eta gazteentzako aisialdi zerbitzua eskaintzen hasiko dira luze gabe. “Irailan hasi nahiko genuke”. Asteburuetako eskaintza izango da, aste barruan eguneko zentro baten itxura hartuko duelako espazio horrek. “Adinez nagusi direnei emango diegu zerbitzua eta ohiko eguneko zentro batean egiten dituzten jarduerak egingo dituzte bertan”, zehaztu du Lopetegik. Gaur egun ere badaude Elgoibarren eta Mendaron zerbitzu hau jasotzen dutenak, baina Azpeitin edo Eibarren. Urria aldera jarri nahiko lukete martxan Elgoibarko eguneko zentroa.

“Espazioak falta ditugu. Zerbitzu gehiago eskaintzeko lekua behar dugu eta Santa Klarako arnasa eman digu”

“Taldea egonkorra izango da eta langile prestatuak izango dituzten beren zerbitzura”.

Elgoibarko familiek izan dute dagoeneko Gautenaren espazio berria ezagutzeko aukera eta pozik, oso pozik, agertu dira ikusitakoarekin.

“Guretzat hau izugarria da. Dagoen

dena gutxi da, eta lokalak ere falta dira. Santa Klarak aukera eman digu esate baterako udan 18 urtez gorako gure gazteentzako aisialdi zerbitzu bat eskaintzeko astegunetan”. Miriam Aldazabal, Nuala elkarteak ama baten ekimenez, sortu dutela zehaztu du Iriondok, eta uztailan eta abuztuan Santa Klara komentuan bildu dira, eguraldiak kanpoan ibiltzeko aukerarik eman ez duenetan. “Mendekotasuna dute gure seme-alabek, eta haientzako bizi gara gu. Eta umeak nagusitzen doazen heinean, arazoa handitu egiten da. Lotuta bizi gara. Inklusioaz asko hitz egiten da, baina benetako inklusioa lortzetik oso urruti gaude, eta ingurura begiratu baino ez dugu jabetzeko”, nabarmendu du.



Nuala elkarteak antolatutako udalekuetan parte hartu duten gazteak, begiraleekin.

DanobatGroupek diruz lagunduko ditu Santa Klara komentua Gautena elkarteko beharretara egokitzeko lanak

DanobatGroupek 600.000 euro bideratuko ditu *Elkarrekin Eragin* lankidetzaren sozialeko programara. Gizarteratzea sustatzea, gaitz neurodegeneratiboetako terapia berriak ikertzea eta autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten pertsonentzako eta senideentzako azpiegitura berriak sortzea dira *Elkarrekin Eragin* programaren aurtengo zutabeak, eta horren barruan, Elgoibarko Santa Klara komentua autismoaren nahasmena duten Gipuzkoako elkartearen beharretara egokitzeko lanak lagunduko dituzte diruz.

DanobatGroupek 2018an abiarazitako lankidetzaren proiektua da *Elkarrekin eragin*, "taldearen konpromiso soziala handitzeko eta langileen parte-hartze aktiboaren bitartez lankidetzaren proiektuak laguntzeko sortutakoa". Aurtengoa bigarren edizioa da. Taldeko langileek beren ustez laguntzak jasoko behar dituzten proiektuen hautagaitzak aurkeztu zituzten lehenengo fase batean, eta gero, bozketaren bidez erabaki dituzte finalistak. Hiru guztira: Bizipoza erakundearen (*Bizipoza.eus*) gizarteratzeko eta elkartzasuna sustatzeko bi proiektu, Elgoibarko Santa Klara komentua birgaitzeko lanak eta Walk on Project (*walkonproject.org/WOP*) erakundearen proiektu bat, zehazki gaixotasun neurodegeneratiboekin kontrako terapia berrien garapenean aurrera egiteko entsegu kliniko bat. Hiru erakunde horiek 600.000 euro jasoko dituzte hurrengo hiru urteetan ekimenok gauzatzeko.

"Gertuko eragin eremuarekiko konpromisoa gure DNA korporatiboaren parte da. Programa honen bitartez gure ingurunearen garapen sozioekonomikoari ekarpena egin nahi diogu, eta horretarako diferentzia markatzen duten proiektuekin elkarlanean jardungo dugu", zabaldu du Andres Mazkianek prentsa-ohar bidez. DanobatGroup taldea osatzen duten kooperatibek mozkin garbieraren %10 Kooperatiba Sustapeneko funtsetara eta interes publikoa duten beste helburu batzuetara bideratu dute. Izaera sozial eta kulturalerako elkarte, erakunde eta ekimenekin lankidetzan aritzen dira, besteak beste, Gurutze Gorriarekin, Lurgaiarekin eta Mundukiderekin.

Diruz lagundutako hiru proiektuak

BIZIPOZA: Bizipoza elkartearenak dira hiru proiektuetako bi. Behar berezidun familien ongizatea bermatzeko lanean aritzen diren 35 elkarte biltzen ditu Bizipoza taldeak, eta dirulaguntza honi esker, hezkuntza gida bat sortuko du hezkuntza arauturako zein hezkuntza ez-formalerako unitate didaktikoak sortzeko. "Tertinguru sozioekonomiko desberdinen inguruko sentsibilizazioa indartzea eta gizarte inklusibo baten eraikuntza aurrera egitea da gidaren helburua", jasoko dute sustatzaileek. Gidaz gain, beste ekimen bat ere jarriko dute martxan: Tokiko Boluntarioritza: KMO Bizi-

poza. Tokiko elkartzasuna eta kultura eta hezkuntzako eragileekin arteko sareak sortzea izango du helburu ekimen horrek, sare horien bidez erakunde publikoen eta gizartearen arteko elkarlana errazteko.

GAUTENA: Gure eskualdean eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzeko baliatuko du Gautenak DanobatGroupek emandako dirua. "Guretzako sekulako arnasa izango da dirulaguntza hau. Hiru urterako laguntza da, eta diru horrek ahalbidetzen digu gure zerbitzua indartzea", azpimarratu du Amaia Lopetegi Gautenako presidentek. Santa Klara komentuko instalazioak egokitzeko dituzte familiei espazio zabalago eta egokiagoa emateko atsedeen programetarako, instalazioak erakundearen eta eskualdeko familien arteko elkargune bilakatzea eta eguneko zentroetan dauden pertsona nagusiei espazio berde zabal bat eskaintzea beraien zuzentzeko dauden programak garatzeko.

WOP: Walk on Project izeneko proiektua lagunduta, berriz, gaixotasun neurodegeneratiboekin ikerketa bultzatuko du DanobatGroupek. Ama zeluletatik abiatuta, haur leukodistrofiari aurre egiteko terapia baten entsegu klinikoak egiteko baliatuko dute dirua [Ondoretasunezko nahasmene genetikoa da leukodistrofia, burmuineko nerbio zuntzak estaltzen dituen mielinen gantzaren endokapenak eragindako nahasmendua].





MIRIAM ALDAZABAL, Nuala elkarteko kidea

“Adinekoen zaintzaz ari garenean jendeak erraz ulertzen du zer den hori, baina guk bizi duguna gauza bera da”

Autismoa duen semea du Miriam Aldazabalek eta Nuala elkarteko kidea da. Aniztasun funtzionala edo adimen-urritasuna duten pertsonen guraso eta lagunen taldea da Nuala eta 2016an sortu zuten zenbait familiak, euren seme-alaben bizitza hobetzeko eta aniztasun funtzionalak bistaratzeko, agerikoa dena, ikusten dena, errazago ulertzen eta onartzen delako. Aurten, udaldirako aisialdia eskaintza sortu dute eta estreinakoz Udalak Gautenari emandako espazioa erabili dute bilgunetzat. Miriam Aldazabal izan da aisialdi eskaintza honen arduraduna.

◆ Nualak udan Santa Klaran eskaini duen aisialdi zerbitzuaren arduraduna zara. Beharrak bultzatuko zintuen. Zein da zure kasua?

Gure semeak 21 urte dauzka eta urtean zehar Atzegik, adimen urritasuna dutenen Gipuzkoako elkarteak, Eibarren ematen duen aisialdi eskaintzan parte hartzen du, zapatuetan. Boluntarioen arduran dago aisialdia eskaintza hori, eta horrek beti dauka arazo bat: beti ez dela nahi beste boluntario batzen begirale izateko eta ordutegia moldatu behar izaten dela sarri. Gustura gaude zerbitzu horrekin, baina hala ere, iruditzen zaigu ez dela nahikoa. Udarako, berri, astebeteko egonaldiak eskaintzen ditu Atzegik, baina gure gazteek gehiago nahi dute, gehiago behar dute, gainerako denok bezala: nahi dute piszi-nara joatea, hondartzara joatea..., baina, normalean, ezin dute laguntzailerik gabe. Eta jakina, gure gizartea ez dago prestatuta aniztasun funtzionala dutenentzat; apenas dagoen ezer gure gazteentzat. Nik ezagutzen nituen beste herri batzuetako aukera batzuk, Zarauzkoa-eta, eta pentsatu nuen sortu genezakeela zerbait Elgoibarren udarako.

◆ Nola antolatut zarete?

Nualatik antolatut dugu eta geure diruz finantzatu dugu dena. Atzegiko erabiltzaileei galdetu nien jakiteko zeintzuk egongo lirartekeen prest, taldetxo bat sortu dugu, Gautenako begirale batzuk kontratatut ditugu eta halaxe sortu dugu aurten 18 urtez gorako gure seme-alabentzako udaldirako aisialdi zerbitzua. 18 eta 25 urte bitartekoak elkartu dira. Uztailean, 8 bat, eta abuztuan, 3. Estreinako urtea izan da, gauza berria, baina datorren urtean gehiago izango dira seguru. Beste herri batzuetan lehiaketara ateratzen dituzte zerbitzu hauek Udalek eta elkarteek kudeatzen dituzte. Gipuzkoako kasuan, asko, Gautenak. Nahi genuke gure inguruko Udalek ere ardura handiagoa agertzea.

◆ Zer izan dira, udaleku irekiak?

Bai. Astean hiru arratsaldez elkartu dira, 17:00etatik 20:00etara, eta udan gazteek egin ohi dituzten gauzak egin dituzte: joan dira Mintxetara, Debako hondartzara, egin dituzte



pizzak, ikusi dituzte filmak, jolastu dira mahai-jolasetara... Oinarritzko kanpalekutat Santa Klarako komentuko espazioa izan dute eta zoragarria izan da. Oso gustura ibili dira, eta gurasoentzako sekulako arnasa izan da. Jende asko ez da konturatuko, baina gu egun osoan gaude gure seme-alabekin. Horregatik, lehenengo egunean bertan Mikel [semea] Santa Klarara eraman eta hiru ordu neuretzat hartu ahal izatea izugarria izan zen; luxua! Adinekoen zaintzaz ari garenean jendeak erraz ulertzen du zer den hori, baina guk bizi duguna gauza bera da.

◆ Hasteko, 18 urtez gorakoentzako eskaintza prestatu duzue. Premia handiagoa delako?

Hori da. Kontua da umetan adin urritasunak ez direla horren agerikoak izaten, baina adinarekin gehiago nabarmentzen direla eta zailtasunak gehitzen direla. Adinez txikiagoentzat badaude aukera batzuk, baina iristen dira nerabegarora eta gelditzen dira ezer gabe. Aisialdia gurasoekin pasatzen dute eta gustura ibiltzen dira gurekin ere, baina behar dute beren adin berekoekin egotea. Gizarte honetan “behar bereziko pertsonak” dira, baina gure seme-alabek gainerakoon behar berberak dituzte: behar dute harremantzea, gainerakoen artean ibiltzea, behar dute kuadrilla osatu... Gauza batzutarako laguntza behar dute, jakina, baina denok behar izaten dugu zerbaitetan laguntza.



► DANEL IRIONDO SKATERRA

“Nire pasioa da skate-a eta libre dauzkadan ordu guztiak eskaintzen dizkiot”

IMHko skate parkean egin dugu hitzordua Danel Iriondo skaterrarekin. Azkarateko bide zaharretik behera entzun dugu patinete hotsa, eta hantxe agertu da, errubera gainean, berari gustatzen zaion moduan. 15 urte ditu, eta ia oinez ikasterako hasi zen patinetean ibiltzen. Gorpil gainean ibiltzea du pasio, irrist egitea. Skate-a, surfa eta snowa praktikatzen ditu, besteak beste.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Noiz hasi zinen skate-ean ibiltzen?

Ume-umetatik hasi nintzen patinetean ibiltzen. Niretzako desplazatzeko modu bat zen patinetea, leku batetik bestera azkarrago eta errazago mugitzeko modua. Plazatik Maalairaino edo ikastolara joateko erabiltzen nuen patinetea. Ó bat urterekin hasiko nintzen. Asko gustatzen zitzaidan patinetean ibiltzea, ikusten nuelako gutxiago nekatzen nintzela oinez joaten baino. Irrist egiteko kirolak gustatzen zaizkit niri: skate-a, surfa, snow-a... Surfa ere umetatik egiten dut. Paipoarekin hasi nintzen probatzen, eta zutik jartzen nintzen! Hori ikusita, surf ikastaroan eman nuen izena Deban, eta berehala erosi nuen surferako tabla. Skate-a eta surfa biak gustatzen zaizkit izugarri, baina surfean olaturik ez badago ezin da ezer egin.

Neguan, snow-a ere egiten dut elurretan. Fisikoa entrenatzeko korrika ere egiten dut.

◆ Nolako patinetearekin hasi zinen?

Hasieratik skate-arekin hasi nintzen. Gaur egun ume gehienek eskuekin helduta joateko patinete horiek dituzte, baina nik horrelakoa berandu probatu nuen, eta berehala aspertu nintzen gainera. Niri skate estilokoa gustatzen zait, betikoa. Astigarraga kirol dendan erosi zidaten nire lehenengo patinetea, eta berri-berri zegoela lapurtu egin zidaten Urazandiko skate parkean. Sekulako disgustoa hartu nuen. Orain hiru patinete erabiltzen ditut bereziki, eta beste bi zahar ditut gordeta. Azkenaldian modan jarri da surfeko mugimenduak imitatzen dituen patinetea. Horietako bat ere badaukat, eta modalitate horretako klaseak eman ditut. Ondo

daude patinete horiek, baina niri betiko skate-a gustatzen zait gehien.

◆ **Skate eskolak emateko eskaini duzu zure burua. Animatu al da jendea?**

Lagun batzuk animatu dira, baina ez gehiegi. Ez daukat prisarik, eta poliki-poliki pentsatzen dut jende gehiagok emango duela izena.

◆ **Zuri norbaitek irakatsi dizu ala zure kabuz ikasi duzu skatean ibiltzen?**

Nire kabuz hasi nintzen skate parkera joaten eta praktikatzeko ikasi nuen. Han ibiltzen zirenei begira, bideoak ikusten eta orduak sartzen. Arratsalde osoa pasatzen nuen Urazandiko skate parkean bueltak ematen, eta azkenean horrela ikasten da. Jende asko eza-gutu dut skate-ari esker, lagun asko egin ditut eta elkarri laguntzen diogu hobetzeko, baina garrantzitsuena orduak sartzea da. Orduak eman eta golpeak hartzen ikasten da. Belaunak babeste-koak badituz, baina mugitzeko traba egiten didate eta normalean ez dituz janzten. Orain truko berriak ikasi nahi dituz eta erabili behar dituz. Aldapetan saltoak egitea gustatzen zait eta horretarako garrantzitsua da babestea. Golpe asko hartutakoa naiz, baina sekula ez dut lesio handirik izan.

◆ **Zer ematen dizu skate-ak?**

Nire pasioa da, eta libre ditudan ordu guztiak eskaintzen dizkiot skate-ari. Jende pila bat ezagutu dut kirol honi esker, lagunak egin dituz, eta plan pila bat egiten ditugu skate-aren bueltan. Aurtengo udan furgoneta batekin joan gara lagun batzuk Portugalera oporretan, eta Landetara ere sarri joaten gara skate-a edo surfa egitera. Nire inguruan lagun gehienak futbolearen edo eskubaloian aritzen dira, eta ni ere ibili nintzen, baina ez zitzaidan gustatzen. kontaktu askoko kirolak dira eta kontaktu hori ezin nuen jasan. Ez naiz ni baloi zalea izan. Pilotan ere ibili izan naiz, eta beste kirol batzuk ere probatu dituz, baina niretzat ez dago skate-a moduko-rik.

◆ **Skate park berria egin dute IMHn. Ba al dago Elgoibarren kirol honetarako zaletasunik?**

Jendea ibiltzen da IMHko skate parkean, baina gehienak nire adin bueltakoak direla esango nuke. Debatik eta Eibartik ere etortzen dira gazteak, baina umeak ez dira asko ibiltzen. Umeak beste mota bateko patineteekin ibiltzen dira, eskuekin heltzen diren patinete horiek ikusten dira asko umeen artean, baina skate-a ez dute askok erabiltzen. Elgoibarren orain dela gutxira arte ez zegoen leku aproposik skate-a praktikatzeko. Orain IMHko parkea egin dute, eta asko poztu nintzen hau egin zutenean. Etxetik gertu daukat, eta Urazandin zegoena baino hobeto dago, baina hala ere, ez da konpletoa, elementuak falta zaizkio. Bowl hau ondo dago, baina street parke bat falta zaio. Bowl-ean aldapak dira gehienak, eta street parkean barandak eta kajoi gehiago jartzen dira akrobaziak egiteko. IMHko gune honek ematen du aukera horrelako parke bat egiteko. Bowl-ean banaka ibili behar da, hori da araua. Barruan

“IMHko skate parkeko bowl ondo dago, baina street parke bat falta zaio”

dagoenak dauka lehenetsuna, eta gainerakoek txanda itxaron behar dute. Bi modalitate desberdin dira, baina niri biak gustatzen zaizkit. Ni asko joaten naiz inguruko herrietako skate parkeetara, Eibarrrera esaterako.

◆ **Kirol olinpikoa izan da aurten skate-a Japonian, eta batzuk kirol olinpikoa izatearen kontra agertu dira.**

Bai, polemika dago. Batzuek diote skate-a kirola baino gehiago artea dela, eta onena zein den ezin dela neurtu. Protesta moduan batzuek ez zuten akrobaziarik egin Olinpiar Jokoetan, geldirik geratu ziren bowlean.

◆ **Noraino iritsi nahiko zenuke skate-ean?**

Nire helburua honekin gozatzea da, eta ahal dudan bitartean praktikatzeko dut. Oporretara noanean ere ez zait inoiz ahazten patinetea. Ordezko erruberak eta hainbat pieza ere hartzen dituz badaezpada. Oinetakoak ere garrantzitsuak dira skate-erako, bereziki, maila handian ibiltzen direnentzat. Ez naiz ibiltzen txapelketetan eta erakustaldietan, ez daukat hainbesteko mailarik. Hor ibiltzen den jendea oso-oso ona da. Niri Jaime Mateu gustatzen zait asko.






IV. URTEURRENA

Isaac Ramos Lopez

2017ko irailaren 12an hil zen, 66 urte zituela.

***Joan zinen gu hemen utzita,
baina, jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.***




V. URTEURRENA

Lucia Larrañaga Idigoras

2016ko abuztuaren 14an hil zen, 60 urte zituela.

***Izan zarenagatik, erakutsi duzunagatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko!
Maite zaitugu.***

Etxekoak



X. URTEURRENA

Leire Ugarteburu Gabilondo

***Urteko egun guztietan
bizi eta biziko
gure gogo-bihotzetan
maite hori!***

Etxekoak

2011 - 08 - 18



XIII. URTEURRENA

Nora Rey Nogales

1998/10/18/ - 2008/08/11

***Onartezinarekin bizitzen ikasten dugu,
alde batera utzi nahi ez dugun maitasuna betikotzeko.***

Ama eta Aita

Irailaren 17ra arteko epea dago Elgoibarko Bertso Eskolan izena emateko



Bertso-eskolan izena emateko epea zabaldu du Elgoibarko Udalak. LH3tik DBHra arteko ikasleek eman ahal izango dute izena, eta irailaren 17ra arteko epea dute horretarako, eskolak hilaren 27an hasiko direlako. Saiok astelehenean izango dira, Aita Agirre kulturgunean. Ordubeteko eskolak izango dira, eta bi txanda egongo dira aukeran: 17:00etan eta 18:15ean. Izena emateko Udalaren Euskara Sailera jo behar da, 943 744 366 telefonora deitu edota euskara@elgoibar.eus helbidera idatzi.

Erraldoi eta buruhandien inguruko bi erakusketa zabalduko dituzte gaur Elgoibarren

Gaur, hilak 10, zabalduko dute erraldoien eta buruhandien erakusketa Elgoibarren, eta irailaren 30a arteko tartea egongo da bisitatzeko (18:00-20:30). 25 urtez baino gehiagoan jaietan irten diren Donal ahatea, lpotx zoriontsua, Pinotxo eta Mickey Mouse buruhandiak, 2015eko abuztuaren 24an estreinatu zituzten amama, aittita, sorgina eta pirata, eta Nafarroako errege-erreginak eta Altzola dorretzeko jaun-andreak ere izango dira erakusketan. Era berean, Idoia Ortega eta Gorka Alonsok osatutako miniaturazko erraldoien bilduma ikusteko aukera ere izango da, Kultur Etxean. Guztira 180 erraldoi bildu dituzte. Kultur Etxeko erakusketak 18:30etik 20:30era arteko ordutegia izango du.



2022ko egutegiko argazki lehiaketa, abian

Urriaren 7ra arteko epea dago 2022ko egutegiko argazki lehiaketan parte hartzeko. Elgoibarko Udalak antolatzen du lehiaketa, Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan, eta aurtengo gaia honakoa da: Elgoibarko baserrietako bizimodua, ohiturak eta lanak. Argazkiak CD batean, itxitako gutun-azalean, eta *Elgoibarko egutegia 2021* izenburuarekin aurkeztu beharko dira Euskara Sailean (Aita Agirre plaza, 3, 1. solairua. 20870 Elgoibar). Ohiko postaz bidaltzeko aukera dago, bai eta posta elektronikoz ere honako helbidera idatzita: euskara@elgoibar.eus. Partaide bakoitzak gehienez sei argazki aurkeztu ahal izango ditu, horizontalean.

Gararock jaialdiko materiala, salgai

Gaur zortzi aurkeztu zuten Gararock jaialdiaren aurtengo kartela antolatzaileek Mendaron, eta ekitaldian izan zen Aitor Etxeberria bera ere, kartela diseinatu duen herriko margolaria. Horretarako mahaia jarri zuten plazan eta aurtengorako propio sortutako materiala saltzen ere jardun ziren. Joan zen astean izan zuten harrera ikusita, gaur berriro irtengo dira plazara, 18:30ak aldera. Kamiseta taila asko agortu egin zitzaizkien ostiralean, baina gaurko izango dituztela aurreratu dute. Jaialdia irailaren 18an izango da, Garagartzan, eta hiru izango dira aurtengo gonbidatuak: Audience, Amorante eta Arima. Arg.: I. Iriondo



Esperuan egon:
Haurdun egon. Ba al dakizu Miren esperuan dauala?

Zabalik dago 'Euskara ala Ezkara' hitzaldi-zikloan izena emateko epea

Urriaren 16rako antolatu dute aurten *Euskara ala Ezkara* hitzaldi zikloa Elgoibarko Izarrak eta Udalak, IMHren laguntzarekin, eta dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. *Euskara ala ezkara ertzetan* izena jarri diote ziklari, eta besteak beste, euskaldun izatea zer den izango dute mintzagai. Bi hitzaldi eta beste bi mahai-inguru prestatu dituzte horretarako, eta ondorengoak izango dira gonbidatuak: Ibon Manterola, Miren Artetxe, Ibai Iztueta, Eneko Gorri, Tarana Karim, Kike Amonarriz, Ningra, Garazi Arrula, Nerea Ibartzabal eta Idurre Eskisabel. Emaldiari amaiera emateko Ningrak rap kontzertua emango du. Goizez izango da jardunaldia, 9:30etik 14:30era, baina nahi duenak pintxo-bazkarira geratzeko aukera izango du. Jardunaldiak 20 euroko prezioa dauka, eta bazkaltzera geratzea nahi dutenek, 27 euro ordaindu beharko dituzte. Interesatuak urriaren 8rako eman beharko dute izena elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzita edo 943 741 626 telefonora deituta.



Trivial txapelketa, Kultur Kafean

Trivial txapelketa antolatu du Kultur Kafek datorren astebururako. Hilaren 17an euskaraz jokatu dute partida, eta zapatuan, berriz, gaztelaniaz. Bitik lau lagunera arteko sei taldek hartu dezakete parte gehienez, eta talde bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeagatik. Talde irabazleak bi dutako dirua, tragoa eta bi anoa jasoko ditu sarritzat. Bi jardunaldiak arratsaldeko 18:30an jokatu dira. Interesatuak tabernan bertan eman beharko dute izena.

UEUren udazkeneko ikastaroak, erdi prezioan

Elgoibarko Udalaren dirulaguntzari esker, UEUren udazkeneko ikastaroak erdi prezioan egiteko aukera izango dute elgoibartarrek. Dirulaguntzak eskatzeko azken eguna urriaren 29a izango da. Interesdunek HAZen, Herritarren Arreta Zerbitzuan, edota www.elgoibar.eus atarian eskatu ditzakete laguntzak. Ikastaroak Bilbon, Iruñean eta Eibarren izango dira, aurrez aurre zein on-line. Informazio gehiago, www.ueu.eus webgunean.

Abel Iriondori eskaini dio Eneko Etxanizek Zarauzko Aurreku Txapelketan eskuratutako garaipena

Hamabost dantzarik hartu zuten parte joan den asteburuan Zarauzko aurreku txapelketan, tartean bost dantzari elgoibartarrek: Jon Etxeberriak, Eneko Etxanizek, Markel Goenagak, Jone Gilek eta Maddalen Oñederrak. Inazio Bereziartua eskolako dantzariak uda osoa eman dute txapelketa honetarako eta azaroan jokatu den beste baterako prestatzen, eta ez da alferrik izan. Guztiek maila oso ona eman zutela azaldu dute arduradunek, eta, bereziki, Eneko Etxanizek eginiko lana nabarmendu dute, berak jantzi baitzuen irabazlearen txapel gorria. Jesus Arana Zarauzko jarduneko alkatearen eskutik jantzi zuen Etxanizek txapela. Ondoren, irabazleari dagokion Agurra dantzatu zuen eta bihotzekoak jota hil berri den Abel Iriondori eskaini zion garaipena, begirada zerura zuzenduz: "Badakit hor goian izango zela gure Abel, indarra eta bultzada ematen, eta denok igarri dugu. Zorionak bost dantzariari, lan bikaina egin dutelako", adierazi du Jon Lizarralde dantza-irakasleak.



Errotuloak euskaratzeko dirulaguntzak

Establezimendua identifikatzeko errotulu nagusia euskara hutsean edota irudi korporatiboa euskaraz edo elebitan jartzan duenari, kostearen % 50eko dirulaguntza emango dio Elgoibarko Udalak (gehienez, 200 euro). Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 29a izango da. Interesatuak Herritarren Arreta Zerbitzuan edo www.elgoibar.eus atariaren bidez egin dezakete eskaera. Informazio gehiagorako Udaleko Euskara Sailera jo daiteke: 943 744 366 / euskara@elgoibar.eus.

ONGARRI ZINE KLUBA		
III. IÑAKI AGIRRE ZINEMALDIA		
IN FESTIVAL DE CINE IÑAKI AGIRRE		
16. OSTEGUNA 21:00	HIJOS DEL SOL	99'
17. OSTIRALA 21:00	HIJOS DEL SOL	99'
18. LARUNGA 19:00	EL OLVIDO QUE SEREMOS	136'
22:15 (ARG)	EL OLVIDO QUE SEREMOS	136'
19. IGANDA 19:00	EL OLVIDO QUE SEREMOS	136'
20. OSTEGUNA 21:00	EL OLVIDO QUE SEREMOS	136'
22. ASTELEHENA 21:00	CAMINHO LONGE	72'
23. OSTEGUNA 21:00	QUERIDOS CAMARADAS	121'
24. OSTIRALA 21:00	QUERIDOS CAMARADAS	121'
25. LARUNGA 19:00	LA MUJER DEL ESPÍA	116'
22:15 (ARG)	LA MUJER DEL ESPÍA	116'
26. IGANDA 19:00	LA MUJER DEL ESPÍA	116'
27. ASTELEHENA 21:00	LA MUJER DEL ESPÍA	116'

Barikuan, hilaren 17an, inauguratuko dute Zinemaldia eta bezperan hasiko da Iñaki Agirre zikloa Elgoibarren

Aurreko urtean nazioarteko zinemaldietan ikusitako film onenen arteko aukeraketa prestatu du Ongarririk. Donostiako Zinemaldiaren 69. edizioa barikuan, hilaren 17an, inauguratuko dute eta ohiturari jarraituz, Ongarri zine klubak eta Elgoibarko Udalak antolatutako iraileko III. Iñaki Agirre zikloa bezperan hasiko da. Fikzioa eta dokumentala ikusteko aukera izango dugu aurten Iran (*Hijos del sol*), Japonia (*La mujer del espía*), Colombia (*El olvido que seremos*), Errusia (*Queridos camaradas*) eta Euskal Herrian (*Caminho longe*) sorturiko lanetan.

- LEIRE URKIDI -

HIJOS DEL SOL



- 16, eguna / 17, barikua
 - 21:00etan
 - Iraupena: 99'
- Zuzendaria: Majid Majidi

EL OLVIDO QUE SEREMOS



- 18, zapatuan 19:00etan eta 22:15etan, jatorrizko bertsioan
 - 19, domeka 19:00etan
 - 21, astelehena 21:00etan
 - Iraupena: 136'
- Zuzendaria: Fernando Trueba

CAMINHO LONGE



- 22, eguaztena 21:00etan
 - Iraupena: 72'
- Zuzendariak: Josu Martinez eta Txaber Larreategi

QUERIDOS CAMARADAS



- 23, eguna / 24, barikua
 - 21:00etan
 - raupena: 121'
- Zuzendaria: Andrei Konchalovsky

LA MUJER DEL ESPÍA



- 18, zapatuan 19:00etan eta 22:15etan, jatorrizko bertsioan
 - 19, domeka. 19:00etan
 - 21, astelehena 21:00etan
 - Iraupena: 116'
- Zuzendaria: Kiyoshi Kurosawa



Anaitasuna taldeko neskek eta mutilak gailendu dira Gojko Vucinic eskubaloitxapelketan

Gipuzkoa, Bizkai, Nafarroa eta Kantabriako kadete mailako 320 jokalariteta tekniarik hartu zuten parte asteburuan Elgoibarren jokatu zen Gojko Vucinic Elgoibar Herria eskubaloitxapelketan. Bederatzi kiroltaldeetako hamasei eskubaloitalde lehiatu ziren Olaizaga eta IMH kiroldegietan, eta Anaitasuna talde nafarrak lortu zuten garaipena, bai nesketan eta baita mutiletan ere. Nesketan, Eibar E.B. taldearen aurka jokatu zuen finala Iruñeako taldeak, eta nagusitasunez irabazi zuten, 24-13ko emaitzarekin. Sanloko kadeteen taldeak eskuratu zuen hirugarren postua, podiuma erabakitzeko partidaren Ermuko Errotaberriri 21-18 irabazita. Zarauzko taldea sailkatu zen bosgarren postuan eta Ereintza, Pulpo eta El Pendo-Camargo taldeek osatu zuten sailkapena. Mutiletan Zarautz eta Anaitasuna ailegatu ziren finalera eta 21-18 gailendu ziren nafarrak. Ereintzak egin zuen hirugarren eta Pulpok laugarren. Eibar, Urola, Sanlo eta El Pendo-Camargo taldeak sailkatu ziren bosgarrenetik zortzigarren postuetara, hurrenez hurren. Sari banaketa ekitaldian gogoan eduki zuten Gojko Vucinic eta lora sorta bat eman zioten alargunari, Natasari. Era berean, txapelketako atezainik onena saritzeko Vuci Trofeoa ere banatu zuten, goi mailako atezaina izan baitzen Vucinic. Pulpo taldeko Andrea Saezek jaso zuen saria nesketan eta Urola taldeko atezain Ander Arratibelek mutiletan. Txapelketako Jokalari Onenaren sariak, berriz, Julen Eceizak (Zarautz) eta Izaro Martiarenak (Ereintza) jaso zituzten. Azkenik, talde guztietako ordezkariak jaso zuten oroigarri bana.



Web orria berri du Morkaikok

Hainbat hilabetez itxita egon eta gero, eguaztenean zabaldu zuen Morkaikok Errosario kalean duen egoitza. Lokala jaiegunak ez diren asteazken guztietan izango dute zabalik, 19:00etatik 20:15era. Zuzendaritzako kideek pandemiak eten zuen ohiko martxa berreskuratu nahi dute "pixkanaka-pixkanaka". Egoitza irekitzeaz batera, Interneten duten presentzia handitu mendi talde beteranoak. "Web orri berriari online tramiteak eta nabigazioa errazten ahalegindu gara. Intereseko gauzak azkar lortzeko bidea ematea eta bazkideekin harremana erraztea izan dute helburu. Gaineratu dute azken joerei jarraituz berri duela webgunea: "Estetika garbia, irudi handiekin eta kolore argiekin diseinatu dugu, argitasuna eta ikusmen-arintasuna eman nahian". Tipografia eta edukien banaketa zaindu dituzte, "orrialde moderno eta atemporalera erakitzeko". Elkarmediak egin die orriaren diseinua eta elkarrekin hasi duten bidean poliki-poliki orria edukiz elikatzen jarraituko dutela esan dute.



C.D. Elgoibarko taldeak sasoi betean, denboraldi-aurrean

Sasoi betean hasiko dute denboraldia Club Deportivo Elgoibarko taldeek. Haundi eta 1. mailako kadeteak gailendu dira Arrasaten eta Eibarren jokaturako lagunarteko txapelketetan, eta emakumeen taldeak ere garaipen argia eskuratu zuten Urdaibairen aurkako lagunartekoan. Haundik Debagoienako hiru talderen aurka neurtu zituen indarrak Arrasate Hiria txapelketan, eta elgoibartarrek lortu zuten garaipena, finalean Bergarari irabazita. Mojategi futbol zelaian jokatu zuten Lauko txapelketako lehen partidari Mondraren aurka jokatu zuten elgoibartarrek eta 0-1 irabazi zuten. Bergararen aurka jokaturako finalean banako berdinketarekin amaitu zen arauzko denbora, mahoneroek azken unean berdinketa lortu eta gero, eta penaltietan irabazi zion Haundik Bergarari. Elgoibarrek hiru penalti jaurtiketa sartu zituen eta Bergarak, berriz, bi. Asteburu honetan hasiko da Ohorezko Erregional mailako liga txapelketa. Haundik Mondraren aurka jokatu du estreinako partida, bihar, 16:30ean, Mintxetan. Ohorezko mailako kadeteek ere jokatu dute Mintxetan, zapatuan, 18:45ean, Urolaren aurka.



Era berean, lehen mailako kadeteen taldeak ere garaipena lortu zuten Eibar Hiria Sari Nagusia Triangularra lagunarteko futbol txapelketan. Lehenik, 1-0 irabazi zieten C.D Urkiri eta 3-1 Debako Amaiak Bat taldeari. Eibartarren eta debarren arteko lehiari, azken hauek gailendu ziren 3-2ko emaitzarekin. Emakumeen taldeak ere jokatu zuten lagunarteko partida bat, Gernikako Urbieta futbol zelaian. Elgoibarrek 0-6 irabazi zion etxeko taldeari, Urdaibairi.

Bernardo Ecenarro enpresak babestuko du Elgoibarko Lagun Taldea 2022an

Datorren urtean izango dituzten babesleen berri eman du Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak. Laboral Kutxa eskal kreditu-kooperatibaren eta Euskadi Txirrindularitza Fundazioaren babesari izango dute orain arte eta orain beste babesle bat gehiago izango dute: Bernardo Ecenarro. "Garrantzitsua da guretzat jakitera ematea 2022. urterako, Bernardo Ecenarro (Besa) eta Laboral Kutxa/Euskadi Fundazioaren babesari izango dugula. Eskerrak eman nahi dizkiegu publikoki Bernardo Ecnarriori, une zail honetan gure txirrindularitza eskolan babesle gisa sartzeagatik, eta Laboral Kutxa/Euskadi Fundazioari, Elgoibarko Lagun Taldeari beste urtebetez laguntzen jarraitzeagatik", adierazi dute kirol-taldeko arduradunek. Era berean, eskerrak eman dizkieten bazkideei eta kirolarien gurasoei kluba sostengatzeko egin dituzten ekarpenengatik eta baita Laboral Kutxa/Euskadi fundazioari ere, azken denboraldietan txirrindularientzako arropa emateagatik. Taldeko Zuzendaritza Batzordetik gaineratu dute laguntzaile bila jarraituko dutela txirrindularitza eskolak dituen beharrak asetzeko. Gaur egun Elgoibarko, Mendaroko eta Eibarko 26 neska-mutilek dihardute txirrindulari eskolan, baina taldeko arduradunen nahia da lizentzia eta txirrindulari kopurua handitzea, eta asmo hori gauzatzeko Elgoibar, Mendaro zein Eibarren hainbat jarduera antolatuko dituztela iragarri dute.



LANA.....
Eskaerak

Egudetik aurrera lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia daukat.

☎ 602 490 595

Edozein lan egiteko prest nago. Garbiketa lanak, adinekoak zaindu...

☎ 693 967 256 (Patricia)

Adinekoak zaindu edota orduka garbitzaile lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 626 49 09 86

Adinekoak zaindu edota garbitzaile lanak egiteko prest nago, orduka nahiz lanaldi osoz. Baita etxeko langile moduan aritzeko ere. ☎ 632 116 534

Edozein lan egiteko prest nago. Sukalde laguntzaile lanetan eta adinekoak zaintzen esperientzia daukat.

☎ 643 071 900

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 641 821 288

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai.

☎ 603 252 536

Adinekoak zaintzeko prest nago, astebarruan zein asteburuetan. Etxeko langile aritzeko ere prest. ☎ 643 584 198

Adinekoak edo gaixorik dauden pertsonak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

Eskaintzak

Asteburu eta jai egunetan jatetxe batean lan egiteko zerbitzaria behar da.

☎ 659 539 861

Jatetxe batek sukalde garbitzeko langilea behar du.

☎ 659 539 861

ETXEBIZITZAK.....

Bi gelako atiko polita alokatzen dut.

☎ 660 042 159 (arratsaldez deitu)

BESTELAKOAK.....

Estimu handia diodan betaurrekoentzako estutxea galdu nuen abuztuan San Roken, Norbaitek izango balu eskertuko nuke bertan agertzen den telefono zenbakira deitzea.

☎ 674 834 352

I. URTEURRENA

Atanasio Olazabal Eizagirre

2020ko irailaren 1ean hil zen, 92 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, domekan, irailaren 12an, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Finantza Administrazioen Kontseilua



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Jakin nahi nuke garaje-plaza baten zati bat itxi daitekeen trasteleku bat egiteko eta sotoan dauden trastelekuen jabeek pasabide-gastuak ordaindu behar dituzten.

Garaje-plaza baten zati bat itxeko jarduketarako horiek Higiezia Eratzeko Tituluak edo Komunitatearen Estatutuek babesten dituztenean izan ezik, Jabeen Batzordearen onspena izan beharko dute, aho batez. Garajeen dauden trastelekuen jabeek pasabide-gastuan duten partaidetzari dagokionez, legeak ezartzen du jabe bakoitzarentzat nahitaezkoa dela gastu komunetarako ekarpena egitea, titulu eratzailan ezarritako partaidetzakuartaren arabera. Zerbitzu bat ez erabiltzeak ez du esan nahi ordaindu behar ez denik. Beraz, estatutuetan edo titulu eratzailan kontraktorik ezarri ezean, trastelekuen jabeek pasabide-gastuak ordaindu beharko dituzte, partaidetza-kuotaren arabera.

ONDORIOA: Uste bada ere, obra horiek ez dutela eraginik erai-kinaren egituran edo segurtasunean, eta ematen badu ere ez dutela kanpoko konfigurazioa aldatzen ere, garajearen erabilera arrazionalari eragiten diote. Garajearen gainean elementu definitzaile batzuk daude, hala nola, sarrerak, irteerak, zirkulazio-erriak, instalazio elektrikoak, eta abar. Elementu horiek desnaturalizatuta geratuko lirarteke itxitura horiek egitea baimenduz gero.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Ekhi**, atzo 4 urte bete zenituelako! Asko maite zaitugu. Patxo potolo bat.



Zorionak, **prinzesa!** Astelehengan 5 urte handi egingo dozuz! Patxo haundi bat etxeko danon partez, **Sara**.



Zorionak, **Paul!** 8 urte handi! Oso ondo pasatu genuen zure urtebetze egunean. Asko maite zaitugu!



Zorionak, **Hai-zea**, abuztuaren 20an 8 urte bete zenituelako. Familiako guztion partez.



Maitasuna hartu-eman bat dela; eman egin behar da hartu nahi denean, eta hartzen denean ere, eman egin behar da. Zorionak, **Bikote!**



Zorionak, **Maule**, abuztuaren 19an 5 urte egin zenituelako, eta zorionak zuri ere **Ihart**, atzo 12 urte bete zenituelako. Muxu asko familiako guztion partez.



Zorionak, **Lea eta Danel**, zuen 4. urtebetzean. Muxu asko etxeko guztion partez.

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€ Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€ . Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

Jon Aranao
 Guillermo Torres

Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

Ispepändegi zerbitzua daukagu.
 Deitu ordon hartzena.

MEKANOSA

Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

EXPRESS ESKAINTZAK!

BOSCH SMS4HTI33E
ONTZI-GARBIGAILUA

599 €

ATG D

● 12 zerbitzu. ● 6 programa.
 ● Aztarnen kontrako herdoilgaitza. ● Wifia.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
 Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

10 BARIKUA

18:00 Erakusketa: 'Erraldoi eta burhandiak'. Aita Agirre kulturgunean.

18:30 Erakusketa: 'Miniatrazko erraldoiak'. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Hilaren 30era arte, astelehenetik zapa-tura.

18:30 Gararock taldekoak materiala saltzera irtengo dira Herriko Enparantzara.

17 BARIKUA

19:00 Ikuskizuna: 'Buala'. 'Kultura Eguzkitan' egitasmoaren barruan. Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Maalako parkean.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

10 BARIKUA	11 ZAPATUA	12 DOMEKA	13 ASTELEHENA	14 MARTITZENA	15 EGUAZTENA	16 EGUENA	17 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Arriola	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauz: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912

Ludotekako eta Gaztelekuko zerbitzuak berriro martxan!

www.elgoibar.eus

Ludoteka

Gabriel Kurutzelaegi, 6
20870 ELGOIBAR
943 748 883

ludoteka@elgoibar.org

 @elgoibarko_ludoteka



Gaztelekua

Gabriel Kurutzelaegi, 4
20870 ELGOIBAR
943 743 228

gaztelekua@elgoibar.org

 @elgoibarkogaztelekua





Maria Etxabe Etxaniz

2021eko abuztuaren 5ean hil zen, 99 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Jose Luis Ansola Eguia

2021eko abuztuaren 12an hil zen, 88 urte zituela.

**Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.
Ez zaitugu ahaztuko.**

Egotoki Elkarte



IX. URTEURRENA

Jose Mari Aramberri Urrutia

2012ko irailaren 13an hil zen. Haren oroimenez IX. urteurreneko meza izango da, domekan, irailaren 12an, 11:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.



Eskertzak eta urteurrenak
943 743 704 / 688 769 657
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



Vidal Sanchez Jimenez

2021eko abuztuaren 9an hil zen, 85 urte zituela. Haren oroimenezko meza, domekan, irailaren 12an, izango da, 11:30ean, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

**Izan zarenagatik
eta erakutsi duzunagatik,
ez zaitugu inoiz ahaztuko.**

Familia





Iñigo Lamelas

Irati Agirreazaldegi



Gainean hartzak eta azpian elurra. Udan gaudela ez ote da gezurra? Zerura begiratuta batek baino gehiagok izan du eguzkia sariago ateratzeko nahia edo euri tantetatik elur malutetara behar baino lehen iristeko beldurra.

Herrian geratu direnek hori, baina izan dute beste batzuek eguzki zein elurretara oporretan joateko adina kategori eta hartzak ikustea ere tokatuko zitzaion agian nor edo nori. Ni ere, opor giroan hasita, ez naiz ba igogailuko elkarriketetan erori? Euri, eguzki, hotz, sargori...

Bai, igogailuan eguraldiaz beheko solairutik zubira, nik, ordea, jarraitu dut sakelako telefonoan argazkiari begira; bi hartza ageri dira eta elkarri lotuta daudela argi da. Baina buruari eman dizkiot hamaika bira beren jarreraren harira; borrokan dihardute, sartu direlako bata bestearen barrutira ala gertutasunean somatu behar genuke maitasun distira?

Eguraldia, oporrak, maitasuna, borroka eta aurten izan ez diren jaiak, baina bai herritarrek sanbartolomeak ospatzeko izan dituzten nahiak eta horrek eragin dituen berbetarako gaiak, besteak beste mozkor giroaren inguruko ezbaiak.

Hiru antz hartu diezaizkiokegu mozkorrari: txoriarena kantari; txerriarena, lo dagoenari; eta hartzarena, borrokalari. Galdetu diot, bai, nire buruari, argazkiko hartzak borrokan ote diren ari. Baina hartzak bezala bueltaka ezin erantzunik eman galderari.

Harramazka eta borroka, elkarri joka edo besarkada goxoka musuak elkarri bota, baina nola egin gaitzaren besoen debekua gugan dago-eta.

Maitasun keinu hutsa baino gehiago da besarkada, baina zer egin elkar sentitzea gaitza bera baino arriskutsuago bilakatu bada? Azkenaldian desberdinak dira: laburragoak, musurik ga-beak eta aho parean, maskara. Hartzak negu eta udara elkarren besotara eta gu elkarri gure besoen artean tarte bat lasai eta hestu egitera berriz noiz bueltatuko gara?

“Harramazka eta borroka, elkarri joka edo besarkada goxoka”

Arte tailerrak



Izen-ematea irailaren 15era arte 666 557 538

Pintura 15€/ hilean

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
17:00-17:50 LH1-LH3	17:00-17:50 LH3-LH6	17:00-17:50 LH6-DBH2	17:00-17:50 LH6-DBH2	17:00-17:50 LH1-LH3
18:05-18:55 LH3-LH6	18:05-18:55 LH6-DBH2	18:05-18:55 LH3-LH6	18:05-18:55 LH1-LH3	18:05-18:55 LH3-LH6

Zeramika 20€ / hilean

Asteazkena

17:00-18:00

LH3-DBH2

Laguntzailea:




ESKAINTZA

Betaurreko jakin batzuetan,
kontsultatu baldintzak

Back to School

Back to Work

2021-09-01
2021-09-30



Uzuri  optika audio

EUSKARA ALA EZKARA ERTZETAN? Euskaldun identitateak XXI. mendean



IBON MANTEROLA

Gaurko euskal hizkuntza-komunitatearen analisia:
ertzak erdigunean.



MIREN ARTETXE

Bertsolaritzatik hiztun berrietara;
hiztun berrietatik hizkuntza ideologietara.

Kafea eta pastak



**IBAI IZTUETA
ENEKO GORRI
TARANA KARIM**

Zer da euskaldun izatea?
Identitatearen gaineko gogoeta.

Moderatzailea:
Kike Amonarriz



**NINGRA
GARAZI ARRULA
NEREA IBARTZABAL**

Euskalduntasun onak eta txarrak:
naturaltasuna auzitan.

Moderatzailea:
Idurre Eskisabel



NINGRArena rap kontzertua

Pintxo-bazkaria (nahi duenarentzat)



ELGOIBARREN - Urriaren 16an, larunbata

IMH ikastetxean, 9:30ean hasita (14:30ak arte)

Izena emateko azken eguna: urriak 8.

27€ (pintxo-bazkariarekin), 20€ (pintxo-bazkaririk gabe).

Informazio gehiago eta izena emateko:

www.elgoibarkoizarra.eus - elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus - 943 741 626

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Babeslea:

